



Euskera, arnas artzen?

Izkuntza gizonaren luze-zabala, kaizu bat dozu. Eta errazak asko diranez, izkuntzak be asko izan bear. Beraz, errialde bakotxak beintzat, berea dau. Guk, euskaldunok, geure euskera; geure barrua euskeraz itz-egitiek adierazten dautsegu besteal. Edozein izkuntzan lez, euskeran ixurita geratzen da gure barrua, gure erriaren nortasuna.

Zoritxarrez, alan be, gizaldietan gabiltz geure berezko nortasuna miñez ta idatziz agertu ezitiek: ixilean eta ezkutuka jokatu dogu nor garean adierazteko bildurrez. Eta bildur ori jalo-barritik sartua darabille gure txikiak be. Oraintsu neuri jazotakoa: lengoan Bizkaiko eliz orria dala-ta, 15 pezetan sal-

tzeko esan neutson orri bakotxa, errikoen artean. Mutiltxoak arpegira begira diraust bertatik: «Eta multea botaten ba'daustie?». Iku-si noraitiokoa dan gure artean sartu dauskuen bildurral

Aspalditik sakatu dauskue politika dala euskeraz itz-egitea, naiz orri batzuk zabaltzea, naiz orrentzat edo onentzat dirua eskatzea. Umetxoak eurak be ba-dakie politikan, edo-ta geure gauzetan ezin daikegula eritxirik emon, agirian batez be. Au ezpada zapalketa, zer ete da?

Gaur orraitiko Ministruen Batzarretik ba-datorkiguz argi-izpi batzuk, itxaropenez jantziak: gauzak obetuko dira antza gure izkuntzari buruz; aurrerantzean itz-egin, es-

koletan ikasi ta idatzi edozein gaietaz, eskubide osotan egin al izango dogu. Noiz edo noiz konturatu ete danok ez gareala gaztelar? Gaur eraturiko Latorri baten azpian, izan be, izkuntza askotakoak bizi gara. Guk euskaldunok be ba-dogu euskeraz geure gauzak besteai adierazteko eskubidea. Ez ete? Nok murriztuko eskubide ori? Ortan oztopo ta eragozpenak jarriko leuskiguzanak ez ete legike pekatu larria? Zer galtzen ete dau gaztelaniak, guk euskeraz egin arren? Kultura-bide eder ez ete dira izkuntzak?

Ordua da, onezkero, eskoletan be euskera sartzeko. Emonda dago, zori onez, ortarako legea. Noiz asiko? Baiña asiko gara. Eskoletan izkuntza bi izango litzatekez orduan. Arrigarri, bear bada? Frantsesa, ingelesa edo alemana ez ete dira ikasten, gaur be, gure arteko ainbat ikastetxetan? Zergaitik ez, gure errian, geure-geurea dogun euskera, beste danak baiño len? Zer kalte letorkigu ortik? Origaitik, beste leku askotan lez, erderak ez leuke bere eskubidea galduko, beti lez, mintzatu ta idazteko. Eziña al da au? Gero ta gero be, auxe berau ez al dagite Suiza'n, Beljika'n, Ingelaterre'n naiz Errusia'n? Iru darabillez Suiza'n, Beljika'n bi, Ingelaterre'n eta Errusia'n danetik zerbait.

Ortik, bada, zerbait egingo ete

gurean be? Igaz, 1975-10-31'an, naiz eta geroago azaroaren 15'an «B. O. del E.» deritxon aldizkarian agertu, Gubernuko ministroak errialdetako izkuntzak —katalana, euskera ta gallegua— ondo ikusita al giñoan laguntzeko erabagiaritu eben. Errege barriak izenpetuta agertu zan erabagi ori.

Laster sortu ziran kritikak, eztabaidak. Baita eritxiak emon be, erabagi ori noraiñokoa zan jakinaiez nunbait. Ainbat urtetan ezertariko laguntasun barik izan ziran, izkuntzok, amesetatik itxartuta lez aurkitu ziran goizetik gabera. Arek eta onek, erabagi orretan ikusten eben bildurra be argi ta garbi jarriten eben. Zergaitik bildur? Izkuntza baztertu orrei toki pixkat egin arren, zerbait galtzen ete eban gaztelarak?

Komunika-bideetan erabilli dai-teke, kulturazko batzar eta bilkuretan; baita Erri-etxekeko batzar eta abarretan be, batzar osoak ez diranean. Zergaitik ez osoetan be? Españera da Latorriko oizko izkuntza, ots, ofiziala. Eta Latorriko, Estaduko goiko erakundeetan, erri-eragintzan, Auzitegietan eta gutzientzako diran alkarte ta baltzuetan, erderaz erabilliko da. Zergaitik ainbeste lotura? Eta ondoren, erabagiak onela diño: «Español bat be ezta baztertua izango erri-izkera jakin ez arren, edo-ta erabilli ez arren». Bapo yagok!

Ez dot uste erabagi onek poztu bear gaitunik. Gure euskera jagon eta aldeztu bearrean, erdera ez al dau len baiño geiago aldezten? Askok autortu dauanez, lengo izularria ta eztabaida gitxitu bearrean, gauzeari ez ete dautso su geiago emon? Lendik be, gure Udaletxe batzutan, euskaldun udaletxetan euskeraz eztabaidatu ta ebazten ziran bertako goraberak. Baiña erabagi orreik liburuetan erderaz idatzi bear ba'dira zer irabazi ete dogu? Auzitegietan bardin; testiguen esan, agiri ta olakoetan, esaterako, besterik eziñean beintzat, orain arte egin oi danez, euskeraz egin ezin ba'da, zer? Aurrera ala atzera ete goaz?

Eta ikastetxeetan? Gure Ikastetxe nagusietan ba-ziran gai guztiak euskeraz emon al izateko zerbait egiñak, iñundiko lege barik, jakiña. Or dogu Amezketa'ko mutil gaztea bere Osalaritza tesisa euskeraz burutu dauana. Aurrerantzean, zelan jokatu? Legez naiz legetik kanpo, guk dagikeguna auxe da: zintzo jokatu, beti aurrerantza; alkarturik, jakiña, alkar-ındarrak dituta eragozpen guztiak azpiratzen; ez legearen aurka jokatzearren, zuzentasunaren babespean jardun nairik baiño. Au dagikegu, ta ekin berorri; ez dausku iñok dana egiñik emongo; ori ez yaku, gaiñera egoki, ez onurakor be. Burruka

GEORGIA. Euskera delata mila jolas ederretan dabiltz alderdi ontako idazleak. Tiflis nobelista georgiatar erdi-jainkoa euskal-abertzale gudararekin burrukan jarriko digu bere liburuan. Kuibyshek jakintsuak georgiata-euskotar iztegia egingo digu, alkartuz, esan nai batekoak direlako, 300 itz euskerazko ta georjiako.

Jadelidze jaunak berriz euskaldunak kaukaso aldetik lur berri on baten billa orain direla 3.500 urte aterararokoak gerala erakutsi nai du.

Mendeleyek berriz, lenari indarra eman nalan, dio, europan barna lur berri gozo ontara etortzen aal izen zutela burnizko tresnetan trebeak zirelako, alegia, burnizko armak erabiltzen bizkorrak eta azkarrak zirelako.

Dena den, ikusten dugunez, gure illuna argitu nai dutenak, maltasunez argitu nai ere, bai dira munduetan.

BIZKAITIK

bear dogu: loak artzen osterantzean.

Atzerri egunerokoak, batek eta bik, aintzagarrizko agiritzat jo dabe; kondairan zear dirdir egingo dauan «eguna» ta olakoak idatzi dabez. Aldiak esango. Beste batzuk, errialde-zaletasun edo regiolanismuak ixil-azteko lerki edo bonba lez ikusi dabe. Zer-edo-zergaz indarrak, kontrako indarrak arindu bear dira. Agiria emon dan lez emonik, nekez ezer indargetuko. Dagoan tenkera gogorra ez da errez urtzekoa. Gaur, izkuntza aldetik soil-soil gauzea ikasita be, zeregin guztiz zailla ta aratnzatsua dirudit. Izkuntza bai da gizonak bere nor-tasuna ta kultura —noberarena ta ez ifiok jarritakoa— norbere gogoa adierazo ta mailla guztietara zabal-azten dauana. Izkuntza, esan dogunez, gizonaren neurkera berezia da; ta neurkera ori zapaldu ta ito ezkeru, agur aren bizitza. Guztiak, barriz, bizia maite.

Laster Ikastoletan —norbaitek esan dauanez eskola burgesetan— ezezik, beste eskola guztietan be

euskeraz irakatsiko da; eziketa oiñarrian bertan be euskeraz irakatsiko, nai dabenai beintzat. 1975-5-30'ko ta 1975-10-31'ko legeak eskubidea emoten dabe ortakero, Lege biok ekiñean sartu ezkeru, eskoletan naiko errez dator elebitza, bilinguismua Daukaguzan maixuak eurak, naiz-ta kanpotarrak izan, toki askotan euskera ikasten asi dira eurak be euren umeai emon al izateko; beste batzuk laguntasun eske dabiltz. Nik astero lau ordu egin oi ditut ume txoai dotriña emoten, E. G. B.'ko eskoletan nunbait, eta emengo eskoletako nagusi ta maixuak ortan dagoz, euskeraz irakatsi bear dabela-ta.

Ia milla ta zazpireun ume dabiltz eskola oneitan, eta maixuak, geienak, ez dira euskaldunak, Zamora aldekoak baiño. Ez ete gara itxar-luko? Ontan be kanpotarrak irabaziko? Euskaldunok —miñetan diñot— jakituria baiño sabela ta aragia maiteago ditugu. Eskolatuko al gara noizbait!

A. O.

MOCEDADES

Betikoak. Mocedades!!! Oi, bilbotarrak!!! Bainan bilbotar izan arren, talde onek, telebistan eta irrati-tan, beti, ia beti, ingelesez kanta ol digu... Lotsa ote dute euskeraz kantatzeko? Erderaz abestuz errazago aberasteko bideetan ote dira? Dena den, dun-dun zaarraren doñuz, azkoitiko dun-dun kanpa zaarraren, dun-dunez dundundu nai dut bilbo aldea, kantatuz kanta erdi-zaar ura: «Un inglés vino a Bilbao...». Inglez aren kume ote ditugu Mocedades delakoak...? Ene! Jolin! Ave María Purísima!

ARABATIK



Euskalerrria pinu-aroan

Urian bizi geranok nahiko kezaturik bizi gera etxegintzak dakarren zuhaitz baztartzea eta ikusiz. Batez ere, Bilbo bezelako iri nagusietan bizi geranok, nahiko larria ikusten dugu gure geroa. Eguratseko kutsadura ugarituz doakigun bitartean, zuhaitzak, landak, soroak, baratzak gutxituz agiri zaizkigu! Zer jazoko ote?

Bestalde, gaur egunetako lantegi ugaritzeak egoera larri hau larriagotu baino ez du egiten. Lehenagoko merkatalgozko iriak ere, orain industriz bete zaizkigu. Badugu, ba, zergatik kezkatu! Arnasarik artu ezin dugun inguru honetan badugu zergatik arduratu

gaurko gizonok, nahiz eta gure sakeletako ekonomia lehenagokoa baino atsegingarriagoa izan!

Hau honela, zer esan Euskalerrri osoari begiratzuz? Zenbateraino dugu kutsatua? Norantzako bidea artu du gure herriak? Badu benetan horrelako zuhaitz-utsitzerik edo? Nolako aldeketak izan ditugu? Zer agiri zaizkigu inguruetan?

Egia esan, zuhaitzak zenbatzen asi ezkeru beintzat, badugu ugari-rik asko gure lurretan nahiz da mota berdinekoak izan. Zuhaitzez beterik ditugu basterrak! Bai, gizonak, ez larritu! Lasai arnas artu, inguruetako aide-kutsatuak nola garbitu badugu-ta. Pinuz beterik